

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 10a / 556. zenbakia

'IRIAUN, FRANTSESEN URREA ETA ELOSU'

liburua idatzi du Juan Luis Bikuñak

ELOSUKO FERIA: 25 URTE EGINGO DITU DOMEKAN/5 • ERRETIRATUAK: KULTUR HAMABOSTALDIA /14

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA: MONIKA BELASTEGI

Barceló Bidaiak



**Zoaz
Realarekin
Turinera!**

AUKERAK

- 1** Irteera eta itzulera urriaren 21an
- 2** Irteera urriaren 20an eta itzulera urriaren 22an
- 3** Irteera urriaren 18an eta itzulera urriaren 22an
Bisitak: Milan, Turin eta Como eta Garda lakuak

Informazioa:
Zurradero 4
943 76 08 43
jobergara@barceloviajes.com

**UDAZKENA
•
NEGUA**



SUBIJAI
Ume eta gazte moda

943 76 42 41. Irizar 1

ATREBENTZIA EZ PADA/ Emakumien arlua landu nahi daben taldea sortu dabe. Zer pentsatzen jatzu?



AMADOR CRESPO
51 urte



AMINA KARBAL
35 urte



ANDREA RENNER
30 urte



GEMA GONZALEZ
29 urte



CRISTINA OLAZABAL
36 urte



BALBINO CASTAÑEDA
38 urte

Oso ondo pentsatzen jat halako taldea egotia. Biha- rrezkua dala uste dot, gai- nera. Batez be elkartzeko eta euren artean aholkatu eta laguntzeko balio leike- la pentsatzen jat.

Ni naiz halako baten biha- rra daukan lehenengua. Ez daukat lanik ezta papelik... Gainera, gizonakin ara- zuak izan dittut; mehatxa- tuta nago eta ez nau pakian lagatzen.

Bada zeozer, baina gutxi pentsatzen jat. Nik uste dot Udala izan biharko litza- kela lehenengua halako zer- bait bultzatzen. Eta beste- la sotu dan taldea be bul- tzatu leike.

Ondo pentsatzen jat. Nor- malian emakumia etxian egon izan da, eta kanpua- lan egitten ez dabenek euki- ko dabe nora jun. Euren gauzen gañian berba egin eta halakotarako.

Oso ondo. Edozeinen alde lan egiteko taldiak sortzia beti dago ondo; eta emaku- miaren kasuan, kontuan izanda herrixan ez dagola halako ezer ba, oso ondo pentsatzen jat.

Ez dot ezagutzen baina ima- ginatzen dot ondo egongo dala. Bestien alde lan egi- teko sortzen dien taldiak normalian ondo egoten die. Eta emakumien alde bada, be bai.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK AZOKA OSTEKO APARKALEKUA Azokan postua duen pertsona batek helarazitako kexuan dio azoka ostean dagoen aparkalekuan hainbat herritarrek lagatzen duela autoa nahiz eta azoka-koendako izan. Ulertzen du, dagoen aparkaleku gabezia kontuan hartuta. Hala ere, egubakoitz gauean lekua errespetatzea eskatzen du. Zapatu goizeko salmentarako karga atera behar izaten dutelako. /M.B.

ETABARRUAN...

<p>ASTEKO BERRIAK /5</p> <p>Elosuko mendi ganadu feria</p> <p>Etzi, domeka izango da. Hala ere, 25. urteurrena dela eta gaur eta bihar ere hainbat ekitaldi egongo dira.</p>	<p>KIROLAK /10</p> <p>Bergara-Touring</p> <p>Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak Touring hartuko du zapatuan.</p>	<p>KULTURA /12</p> <p>Javier Arrillaga</p> <p>Zarautzeko abeslariak emanaldia egingo du bihar, zapatua, 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.</p>
---	---	---

ASTEKODATUA

25

ELOSUKO FERIAK BETEKO DITUEN URTEAK

Domekan, Pilarika egunean, 25. urteurrena egingo du Elosuko Mendiko Ganadu Feriak. Hori ospatzeko, gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, hainbat ekitaldi egongo dira.

BESTEKEKESANA

Gripearen txertoaren gainean esamesak eta mitoak handiak dira. Zenbaitek uste du txertoa hartzean katarroa hartzeko arrisku handia izaten dela, baina ez da horrela. Kontuan izan behar da urte sasoi honetan oso arrunta dela katarroak izatea; beraz, txertoa hartzen dutenek ere katarroa har dezakete.
VICTOR IRIGOIEN / Medikua
'Gara' / 03-09-26

AKATSAK ZUZENTZEN

Bergarako Gida 2003an Arrano tabernako telefono zenbakia oker azaltzen da. Hau duzue Arrano telefono zenbaki zuzena: 943 76 02 54.

BERAIEKDIÑOÈ/ Jon Suinaga



Piratak

Egurrezko hanka bat, txaplata begi batean eta loro bat sorbaldan. Zikinak, lotsagabeak eta umore txarrekoak. Behinola, pirata bat ikusterakoan ez zegoen zalantzarik jakiteko zein eta zer zen.

Armani traje bat, zetazko alkandora, ilea engominatuta, eta irribarrean marrazo hortzak erdi erakusten. Faltsu galantak, eskrupulo gabeak eta diruzale amorratuak. Gaur egungo pirata jendearengana isilean hurbiltzen da eta nor den konturatzen zarenean... beranduegi da.

ahulenez aprobetxatzen dira. Pirata hauekin ez da hain erraza jakitea nondik datozen eta nola defendatu. Bankari, multinazionalako exekutibo edo gobernari mozarrotuta hurbiltzen dira. Bere irribarrearekin limurtzen zaituzte eta konfiantza ematen diozunean... Zas! irentsi egiten zaituzte.

Lehenago piratek harro onartzen zuten nor ziren. Jokoaren arauak sinpleak ziren: Gauzak ondo joan bitartean luxuzko bizitza, emakumeak, bitxiak, rona... Baina hori bai, harrapatzerakoan jurkara! kexurik gabe.

Gaurko piratak, jaun errespetagarri bezala aurkezten dira gizartearen aurrean. Eta atxilotuak direnean, zer diren ukatzen dute. Gainera, beste pirata batzuen laguntzarekin, segidan kalean aske egongo dira.

Aukeratzea posiblea bada, nahiago dut antzinako piraten kontra aurre egitea. Noren kontra nabilen jakingo nuke, behintzat.

"Nahiago dut antzinako piraten kontra egitea. Noren kontra nabilen jakingo nuke, behintzat"

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 10**
MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 11**
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- DOMEKA, 12**
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 13**
PUY. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 14**
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 15**
ESTELIA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUENA, 16**
MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRIAOK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariatza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
11:30, 13:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00.
Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.
Elosu
Domekak: 10:30.
Ubera
Domekak: 10:30.
San Juan
Domekak: 11:00.
Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZGuneak herritar guztien dako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Era berean, dendariei zuzendutako ikastaroak izango dira. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zerbakian.

1959AN JAIOTAKOEN AFARIA
1959an jaiotako bergararren afaria izango da urriaren 25ean, Azpeitxi jatetxean, 21:30ean. Interesatuak frontoiko tabernan eman beharko dute izena, eta aurrez 10 euro ordaindu.

1962AN JAIOTAKOEN AFARIA
1962an jaiotako afaria urriaren 25ean Erreki jatetxean. Izena ematea Errekin (aurrez 10 euro). Afari egunean 20:00etan elkartuko dira Frontoian.

MARGO IKASTAROA
Beart elkarteak margo ikastaroa antolatu du. Eskolak martitzenetan izango dira, 16:30etik 20:30era, urriaren 7an hasita. Izenematea: 656 72 44 49.

ZERAMIKA, TAILA ETA KOADERNAKETA
Ardatza dendak zeramika, taila eta koadernaketa ikastaroak antolatu ditu. Argibideak 943 76 18 93 telefono zerbakian.

JARDUNENAGENDA

JOLASLEKU IBILTARIA URRIAREN 17AN ESPOLOIAN
6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako jolasleku ibiltaria izango da urriaren 17an Espoloian, 17:00etan. Jolas hauek egingo dituzte: sokasaltoa, abestiak, zapi-jolasak, tortoloxak, baloia... Jolaslekuak baliabide egoikiak eskaini eta ahozkotasuna lantzea du helburu.


URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Atzerritik Bergarara etorritako ingeles irakasleak

1993ko urriaren 15eko BERRIGARAN atzerritik Bergarara etorritako ingeles irakasleen gaineko erreportajea egin genuen. Urte hartan bost irakasle berri etorri ziren herriko hizkuntza akademietara. Gustura ari ziren gure artean lanean, eta Euskal Herria atsegin zutela esan ziguten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pikatxoa"

Bidegintzan eta erabiltzen den lantresna. —Kalian ganora barik dabitzen gaztiei pikatxoa ta palia emongo noskiek.



HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 7	6 °C		
MAXIMOA Eguaztena, 1	24 °C		
ASTEKO EURIA (l/m²)	12,1 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 1	24 °C	14 °C	3,4 l/m ²
Eguena, 2	22 °C	14 °C	2,1 l/m ²
Egubakoitza, 3	20 °C	12 °C	7,7 l/m ²
Zapatua, 4	16 °C	13 °C	24,7 l/m ²
Domeka, 5	14 °C	13 °C	5,9 l/m ²
Astelehena, 6	16 °C	8 °C	- l/m ²
Martitzena, 7	20 °C	6 °C	4,8 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'LA LIGA DE LOS HOMBRES EXTRAORDINARIOS'

ZUZENDARIA: STEPHEN NORRINGTON. AKTO-REAK: SEAN CONNERY, STUART TOWNSEND.

HARIA. Mamu ero batek mundua menderatu nahi du eta gizon ausarten talde batek hori garaizteko ahalegina egingo du...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'EL BONAERENSE'

ZUZENDARIA: PABLO TRAPERO. AKTO-REAK: JORGE ROMAN, MIMI ARDU, DARIO LEVY.

HARIA. Buenos Aires probintziako herri txiki baten bizi den sarrailagile batek bizimodu lasaia darama. Lanetik aparte ez dauka beste zaletasunik. Hala ere, gauzak erabat aldatuko dira poliziak atxilotzen duenean. Sarraildegi-ko nagusiaren laguntzaz kutxa gotor bat zabaltzea eta lapurreta egitea leporatuko diote.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, hilak 16, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

FERIA/Aurten 25 urte beteko ditu feriak, eta hori ospatzeko, gaurko eta biharko hainbat ekitaldi antolatu ditu Elurtxiki auzo elkarteak

Mendiko Ganadu Feriak ekitaldi ugari batuko ditu Elosu auzoan etzi, domeka


MONIKA BELÁSTEGI

Pilarika egunarekin bat eginik, etzi, domeka, Mendiko Ganadu FERIA egongo da Elosun. Aurten 25 urte beteko ditu, eta urteurrena ospatzeko, feria egunari ekitaldiz jositako beste bi egun gehitu dizkiote: gaur, egubakoitza eta bihar, zapatua, izango da zer ikusi Elosun.

Dagoeneko prest dago etzi, domeka, Elosun egingo duten Mendiko Ganaduauren 25. FERIA egitaraua. Elurtxiki auzo elkarteak antolatu du, ohi bezala, Bergarako eta Azkoitiko udalen laguntzarekin.

Ganadu feria 09:00etan hasiko da, eta hainbat arrazatako behiak, zaldiak, ardiak eta beste hainbat animalia ikusteko aukera egongo da. Horrekin batera, artisauak eta bestelako salmenta postuak ere egongo dira, eta Elortza anaiek trikiti doinuekin jardungo dute goizean barrena giroa alaituz.

Bestalde, 11:00etan meza nagusia egongo da eta 13:00etan, ganadu ferriako sari banaketa egingo dute.



ARTXIBOA

Baserriko produktuen zortzi postu inguru eta artisauen beste hamar ikusi ahal izango dira Osintxuko ferian.

Ferriak 25 urte beteko dituela-eta, ekitaldi ugari izango dira asteburuan

Goenatxo II.ak hiru minutuko marka ahalegina egingo du 152 kiloko harri kubikoarekin

Ferriara joateko autobusa egongo da doan; lehen 09:00etan abiatuko da, Ariznoa plazatik

ARRATSALDEAN HERRI

KIROLAK NAGUSI

Arratsaldean herri kirolak izango dira ferriaren ardatz nagusia. 17:00etan hasiko da herri kirolen erakustaldia: batetik, Azurmendi eta Txapartegi aizkolariek jardungo dute eta bestetik, Goenatxo II.a eta Elosukorta harri-jasotzaileek.

Goenatxo II.ari dagokionez, marka ahalegina egingo du: 152 kiloko harri kubikoarekin hiru minutuko saioa egiten saiatuko da. Orain arteko marka ere berak du, 16 altxaldirekin.

Feria berreskuratuta

Aurten 25 beteko dira mendiko ganadu feria berreskuratuta zutela. Elurtxiki Elkarteko kideen esanetan, duela 400 urte inguru galdu zen feria, nahiz eta zergatia ez dagoen oso garbi. Gehitu dutenez, azoka izaera ei zuen ordukoak; ganadua gain, oihalak eta bestelako gaiak ere izaten ziren salgai garai hartan.

Feria egiten hasi eta handik hiru urtera jakin zuten antolatzaileek antzina ere egiten zutela, eta ondorioz, urte askoren ondoren berreskuratuta zutela. Dagoeneko 25 urte egingo ditu, eta hori ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Ferriara joateko autobusa egongo da egun osoan, doan. Ariznoa plazatik abiatuko da eta lehenengo 09:00etan aterako da.

GAUR ETA BIHAR EKITALDI GEHIAGO

Ferriak 25 urte beteko ditu aurten. Hori ospatzeko, asteburu osorako ekitaldiak antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, afaria egongo da 21:00etan, Elurtxiki elkartean. Afari hori, 25 urteotan lanean ibilitako pertsonen eskerrak emateko egingo dute. Afariko giroa alaitzeko auzoko bertsola-

riek eta Kutxurdio eta Kantera trikitilariak jardungo dute.

Bihar, zapatua, mendi irteera egongo da Elosuko mugak eza-gutzeko. 09:00etan abiatuko da, eta oinez, bizikletaz zein zaldiz egin ahal izango da ibilaldia. Ibilaldian barrena, pintxoak eta salda banatuko dituzte. Ordu berean argazki rally-a egongo da.

Arratsaldean, berriz, mus txapelketa egongo da, 16:00etan, abade etxean, eta 17:00etan txokolate-jana eta haurrendako jolasak egongo dira.

Martitzenean laga egin zuten greba Torunsako langileek

MONIKA BELÁSTEGI

Martitzenean Lan Hitzarmena itxi zuten Torunsako langileek eta zuzendaritzak. Hori dela eta, egun berean laga egin zuten mugagabeko greba. Enpresa batzordea pozik dago adostu duten hitzarmenarekin.

Martitzen eguerdian itxi zuten akordioa zuzendaritzarekin. Enpresa batzordeko ordezkarien esanetan, eragingarria izan da greba. Duela bi aste hasi zituzten mobilizazioak: lehen astean bi greba egun egin zituzten, joan den


astean hiru, eta astelehenean mugagabekoa hasi zuten, nahiz eta martitzenean bertan behera laga.

Enpresa batzordea pozik azaldu da zuzendaritzarekin lotutako akordioarekin. Langileen aldarrikapen nagusietakoa kontratazioa zen, eta ia eskatutako guztia lortu dutela azaldu dute. Besteak beste, azpikontratututa dituzten langile guztiei Torunsak egingo dizkie kontratua; hiru urtera mugagabeko kontratua egingo diete langile guztiei eta azpikontratututako enpresan eman duten denbora aintzat hartuko dute eta produkzioko lan-

postuetan ez da azpikontratazio gehiagorik egingo.

Lan Hitzarmenak bi urterako balioa izango du eta beste puntu hauek ere adostu dituzte: soldatari dagokionez, aurtengo eta datorren urteko igoera KPI gehi puntu bat izango da. Eta lan jardunaren murrizketaren kasuan, aurten 10 ordu eta datorren urtean 12 ordu murriztea adostu dute.

Joan den astean Ertzaintzarekin izandako auziarengatik atxilotutako langilearen kasuan, ez zuten astelehenean epaiketarik izan. Abokatuak eta fiskalak akordioa egin eta isun txikia jarri diote.



ARTXIBOA

Enpresa batzordea pozik azaldu da sinatutako Lan Hitzarmenarekin.



ARTXIBOA

Udalak eta dendariak esfortzu berezia egin beharko dute herriko merkataritza bultzatzeko.

MERKATARITZA/ Lehen fasean merkataritzaren egoeraren diagnostikoa egin dute

Merkataritza indartzeko planaren 2. fasea hastear

MONIKA BELASTEGI

Udalak herriko merkataritza indartzeko plana jarri zuen abian uztailean. Bi urrats nagusi ditu planak: bata, merkataritzaren egoeraren gaineke diagnostikoa egitea; bestea, merkataritza indartzeko neurriak zehaztea. Lehena, diagnostikoa, bukatu dute.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ekimena da plana, eta Udalak merkataritza bultzatzeko asmoz herrian aurrera eramateko erabakia hartu zuen.

Bilboko Idom enpresa da planaz arduratu dena, eta uztailean ekin zion lehen faseari. Dagoeneko bukatu du eta txostena Udalaradunean eta Bedelkar elkar-

teko kideei eman diete, haiek azter dezaten.


ESKAINZA ETA ESKARIA AZTERTU DITUZTE

Lehen fase horretan merkataritzaren diagnostikoa egin dute; batetik, herriko merkataritza eskaintza zein den eta nolako den aztertu dute; bestetik, kontsumitzaileen aldetik eskaera zein den. Horretarako, elkarrizketak eta telefono bidezko inkestak egin dituzte; 50 dendatan eta 399 herri-tarri, hain zuzen ere.

Merkataritza eskaintzari dagokionez, besteak beste, honako datuak jaso dituzte: zer eskaintzen duen, zer zerbitzu ematen duen, tamaina, noiz dagoen berri-tua, informatizazio maila, pertsonalaren adina, prestakuntza, inguruarekiko iritzia...

Kontsumitzaileen kasuan, honako datuak jaso dituzte, besteak beste: herri mailan zenbat kontsumitzen duen eta zer, nola mugitzen den erosketak egiteko orduan, kanpora baldin badao erosketak egiteko nora joaten den eta zer erostera, zergatik joaten den kanpora...

Datorren astean batzarra egingo du herriko dendarien elkarteak, Bedelkarrek, Komer-tzioaren Zerbitzu Teknikorako Kabinetarekin. Batzar horretan, Idom enpresak egindako txostena aztertu eta denden egoerak onera egiteko ekintzak zehazten joango dira. Udalak ere gauza bera egingo du txostenarekin. Ekintza horiek zehaztuta daudenean ekingo diote bigarren faseari, datorren hiletik aurrera, seguruenik.



Hainbat pintaketa herrian barrena

BERRIGARAko erredakziora bidalitako ohar baten bidez, publikoki salatu nahi izan du Udala gobernu batzordeak joan den irailaren 27an, zapatua, herriko hainbat tokitan eta kaletan agertutako pintaketak.

Hogeita hamabost pintaketa inguru azaldu dira Udaleko iturrien esanetan; besteak beste, San Martin plazan, Barrenkalen, Bidekurutzetan, Simon Arrietan eta Kruz Gallastegin.

Udaletxeko fatxadan ere azaldu dira pintaketak.

Osintxun etxeak egiteko lurra atera du lehiaketara Udalak

M.B.

Osintxu auzoan dituen bi lur zati eskualdatzeko baldintzak onartu ditu Udalak osoko bilkuran. Eta lehiaketara atera dituzte.

Rodamientos Eder SL enpresari iaz erosi zizkion lur zatiak dira Udalak eskualdatu nahi dituenak. 625 metro koadro inguru dute bi lur zatiek eta 16 etxebizitza eraikitzeko erabiliko dira, Udalak helburu horrekin erosi zituen-eta. 16 etxebizitza horiek eraikin bakarra osatuko dute eta garajea ere izango dute. Lehia-

ketan parte hartzeko lizitazio oinarria 124.172 eurokoa da BEZA kontuan izan barik.

Horrez gain, esleitzea erabakitzeke orduan hainbat gauza hartuko ditu kontuan Udalak: besteak beste, etxebizitzaren gaineko oinarritzako proiektua aurkeztea, etxebizitza horiek osintxuarrendako izatea eta lehenengo beste etxerik ez dutenei erosteko aukera ematea.

Bestalde, Angiozarko Partaitin dagoen urtegitik Ubera auzo-arek hornitzeko lanak ere atera dituzte lehiaketara.

Antzinako dendan publizitatea ikusgai Nahikarin

E.M.

Del tiempo de maricastaña titulupean, herriko dendan XX. mendeko lehen erdialdeko publizitatea, fakturak eta bestelako agiriak ikusgai daude Nahikari tabernan, urriaren bukaerara arte. Mikel Murgizuk antolatu du erakusketa eta bertan 1960. urtera bitartean hainbat dendak erabiltzen zituzten iragarkiak, bisita txartelak, fakturak eta bestelako agiriak daude ikusgai.

BITXIKERI UGARI

Erakusketan bitxikeria dezente aurki daitezke: esate baterako, *Hotel Del Siglo de Vicente Ydarreta*

dioen txartela. Hotelak "Gran Instalacion Electrica", "Espaciosas y comodas habitaciones para familias" eta "Carruajes del mismo hotel para viajes y paseos" dituela zehazten da. Alboan, turistek zuzenduta, zera idatzita: "On parle francais" eta "English spoken". Iragarkia XIX. mendearen amaierakoa da, argindarra 1890ean iritsi baitzen Bergarara.

Kasu gehienetan desagertutako komertzioen bitxikeriak dira: *Fabrica de curtidos Galarza hermanos y Arbulu, Fabrica de calzado Jose Lazpiur y Cia, Farmaceutico Luis Azcarraga...* Erakusketa, esan bezala, urriaren azkenera arte zabalik dago.

HOTEL DEL SIGLO
DE
VICENTE YDARRETA
VIDACRUCETA, 16
VERGARA

COMPLETO Y ESMERADO SERVICIO EN TODAS SUS DEPENDENCIAS
GRAN INSTALACIÓN ELÉCTRICA
ESPACIOSAS Y CÓMODAS HABITACIONES PARA FAMILIAS
ALMUERZOS Y COMIDAS A TODAS HORAS
CARRUAJES DEL MISMO HOTEL PARA VIAJES Y PASEOS
ON PARLE FRANÇAIS ENGLISH SPOKEN

Erakusketan ikusgai dagoen *Hotel Del Siglo*ko txartela.

LABUR

Urriaren 21a izango da etxeko traste zaharrak ateratzeko hurrengo eguna

Aste honetan pasatu da kamioia etxeko traste zaharrak jasotzera. Hurrengo eguna urriaren 21a izango da. Izan ere, hileko lehen eta hirugarren martitzena da etxeko trasteak ateratzeko eguna.

Iluntzeko 19:00ak ondoren atera behar dira trasteak eta zaborra lagatzen dugun edukiontzien ondoan utzi behar dira. Herri-gunean ez dauden auzoen kasuan, astelehenean Udaltzaingoa eman behar dute abisua.

ELKARRIZKETA

JUAN LUIS BIKUÑA / 'IRIAUN, FRANTSESEN URREA ETA ELOSU' LIBURUAREN EGILEA

"Hain gertu baina aldi berean urrun dago Elosu auzoa; denbora geratu egiten da han"

MONIKA BELASTEGI

Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu izeneko liburua aurkeztuko du Juan Luis Bikuña gaur osoko bilkuren artean, 19:30ean. Besteak beste, Elosuko nagusiei egindako elkarrizketez baliatuz auzoan berrera ibilaldia egin du liburuan.

Zer jasotzen du liburua?
Duela 20 urte, 1982-83 artean, hainbat elkarrizketa eta bitxikeria jaso nituen Elosun. Orditik gordeta izan ditut, baina ebakuntza egin didate aurten, eta bajan egon naizen denboran elkarrizketak hartu eta ordenatu egin ditut. Pena ematen zidan Elosuko biztanleek kontatutako bitxikeria eta istorio haiek galtzea. Eta horregatik argitaratzea pentsatu genuen. Azken baten, hain gertu dagoen Elosu aldi berean urruti dago. Izan ere, hara joan eta bertakoekin berba eginez gero, denbora gelditu egiten da: nahiz eta nekazari jarduera modernizatu egin den, jendearen izaeran oraindik ere bada lehengo lasaitasuna. Hori guztia kontuan izanda pentsatu nuen liburua.

Elosu kaletarroi ezagutzera emateko liburua da?
Bai, jendea animatzeko hala-ko lekuetara joaten, batez ere



Jesus Alberdi 'Egileor' bertsolariak bertsoekin lagunduko dio Bikuñari liburua aurkezten gaur.

daramagun bizimodu azkar eta estresagarria kontuan izanda. Eguneroko eskema horrekin apurtzeko aukera eskaintzen du Elosuk toki lasaia den neurrian, eta 5 kilometrora besterik ez dago. **Liburuan Elosuko eraikinen berri ematen duzu. Iriaun izeneko etxea ei da egin zuten lehena.**

"Batik bat Elosu kaletarroi ezagutzera emateko da liburua, eta joatera animatzeko"

Bai. Nafarroako erregeak agindu ei zuen eraikitzea, XI. mendean. Gaur egun Ixaun jate-txea da. Datu askorik ez dago; aurkitu ditudan XVI. mende erditik aurrerakoak dira. Garai hartako jaunaren etxea zen Iriaun. Parrokia egin zutenean ere San Andres de Iriaun zen. Eta jauntxo haren inguruan bizi ziren

ingurukoak. Garai antzerakoan baina urte batzuk aurrerago beste etxe bat sortu zen, Narbaiza, eta handik aurrera gainerakoak. **Gaztelu bat ere aipatzen duzu liburuan.**
Hilerriaren ostean bada muin-txo bat. Bada, hari gaztelua esaten diote. Baina ez dago datu zehatzik esaten duenik han gaztelua zegoenik. Hainbat liburutan agertzen da Felipe II.ak agindu zuela hainbat gotorleku desegiteko, eta tartean Elosu aipatzen du. Baina kontuan hartu behar da 1200. urteaz berba egiten dihardugula, eta garai hartan ez zegoela herri-rik han. Beraz, badirudi ez dela zentzu handirik gaztelua izateak. Seguru asko, eta Larra-mendik ere hala aipatzen du, behatokia izango zen, Urola bailara zaintzeko gunea. Haren harriak erabili zituzten gero parrokia-aren kanpandorra egiteko. **Elosuarrek kontatutako hainbat mito eta kondaira jaso dituzu.**
Bai, Elosukoak bertakoak dira, gainera. Eta bada bat frantsesak eta urrea lotzen dituen. Horixe da, gainera, izenburuaren elementuetako bat: *Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu*. Iriaun da auzoaren lehen izena, Elosu gaur egungoa eta bien arteko zubi egiten, trantsizio moduan ipuina.

Goi mailako Lanbide Heziketako Batxilergo Institutua
Miguel ALTUNA

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAETAKO SAILAK
DIRUZ LAGUNDURIK ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATURIK

TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZATU IKASTAROA

IRAUPENA: 695 ordu.
NORENTZAT: **Langabezia dauden gizon-emakumeentzat.**
EGITARAUUA:

1. TEORIKO-PRAKTIKAK. (495 ORDU)

Produktuaren ezaugarriak egiaztatzea	75 ordu
Planoen interpretazioa	40 ordu
Bistak eta krokizazioa	40 ordu
Fresatzeko makina konbenzionaleko mekanizazioa	60 ordu
Tornu konbenzionaleko mekanizazioa	60 ordu
Mekanizazio-prozedurak: ebaketa eta konformazioa	40 ordu
Artezteko makina zilindrikoko mekanizazioa	40 ordu
Artezteko makina lauuko mekanizazioa	40 ordu
Lan taldeko harremanak	60 ordu
Fabrikazio mekanikoko industrietako Segurtasuna eta Ingurugiroa	40 ordu

2. LANTEGIKO PRAKTIKAK (200 ORDU)

EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATUA

DIRULAGUNTZA:

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

Matrikula zabalik 2003ko irailaren 29tik aurrera. Ikastaroaren hasiera urriaren 20an.
Informazio gehiago idazkaritzan: 943 76 24 91 eta 943 76 38 40.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13


CRISTINA
LEVI'S BANATZAILE OFIZIALA

ARRURIAGA z/g (Burdiñate parean) 943 76 03 04



MARIAREN LAGUNDIKOAK ASTITZEN

Mariaren Lagundia ikastola-ko 4. mailako ikasleak Astitzeko aterpetxean (Nafarroa) izan ziren irailaren 22tik 24ra. Blanca Ruiz de Zarate eta Belen Abartzuza irakasleen laguntzaz, 31 ikasle joan ziren, eta ondo baino hobeto pasatu zuten. Esan digutenez, eurekin ibili ziren Arturo eta Iban begiraleak oso jatorrak ziren, eta Saguxar tailerrean gauza asko ikasi zuten. Horrez gain, eguraldia lagun, inguruko mendiak eta kobazuloak ikusteko aukera izan zuten. Argazkian, ikasleak *Filomena*-ren -Kaiku esnearen iragarkiko behiaren- baserri aurrean.



ANTTON OTAOLA IRAKASLEARI AGUR BAZKARIA EGIN ZIOTEN LANKIDEEK

Miguel Altunako irakasle eta langileek agur bazkaria egin zioten Antton Otaolari aurreko egubakoitzean, urriaren 3an. Antton Otaolak 32 urte egin ditu eskolan irakasle lanetan eta orain erretiratzeko ordua heldu zaio. Joan zen asteko bazkarian 50 lagun elkartu ziren Lasa jatetxean eta umore onean primeran bazkaldu ondoren, Otaolak hainbat opari jaso zituen lankideengandik. Argazkian, Antton Otaola eta Iñaki Larrañaga Miguel Altunako zuzendaria (zutik biak) bazkalosteko omenalditxoan.



IRIZARKO ARTEA GAIXO

Udal brigadako lorazainek Irizar parkean zegoen Artea kendu egin zuten martitzenean. Artea oso egoera txarrean zegoen eta lorazainek kentzea erabaki zuten. Antza, herriko beste hainbat zuhaitz nahiko egoera txarrean daude, eta lorazainek izango dute lana datozen asteotan. Argazkian ikusten den toki horretan, hain zuzen, beste zuhaitz bat jarriko dute laster.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3

943 76 12 22


SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4

943 76 37 53

vegasa



MINGAINARITIRAKA



Asun
Osuna

ELKAR FOTOKOPIA DENDAKOA

Hamabost urte daramatza Asunek Elkar fotokopia dendan lanean. Gaur egun bera eta Pilar Ballesteros dira bertako bazkideak. Gustuko lana duela diosku Asunek. Virgo zeinukoa, ezkonduta dago eta bi seme-alaba dituzte: Julen eta Olaia.

- Fotokopiatzeko eskatu dizuten gauza bitxiena?
Behin ikasle bat etorri zen, oinazpia fotokopiatzeko eskatzen, unibertsitateko proiekturen baterako-edo... Nahiko barre egin genuen. Posta elektronikoa egonda, faxa erabiltzen da oraindik?
Bai, asko. Posta elektronikoa ere badugu, baina faxa ez da hila oraindik, jendeak erabiltzen du.
- Txikitan zer izan nahi zenuen?
Pelukero-edo.
- Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?
Atzeko orrialdea.
- Eta zein albiste irakurri nahi zenuke?
Munduko gerrak bukatu egin direla.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?
Etxean lasai egon, aisialdirako denbora laburra daukat-eta.
- Kirol gustukoena?
Aspaldian ez dut egin, baina *footing* egitea gustatu zait beti.
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?
Perdida en su memoria (Mary Higgins Clark)/*Gladiator*/Manolo Garcia.
- Gustuko janari eta edari bana?
Pasta eta garagardoa.
- Etxeko lan gorrotagarriena?
Plantxa egitea.
- Zure bertute bat? Eta akats bat?
Bertutea, irekia naizela; akatsa, batzuetan jenio bizia izatea.
- Besteengan gehien estimatzen duzuna?
Egiazaletasuna, gezurretan ez ibiltzea.
- Seme-alabei zer errepikatzen diezu behin eta berriz?
Elkarri zirikatzen ez ibiltzeko.
- Urtaro bat/Kolore bat/Gustuko jantzi bat?
Negua/Beltza eta urdina/Prakak.
- Loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?
Lan egiteari lagako nioke!
- Bidaia bat nora egingo zenuke?
Australiara, munduko beste puntara.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

UNAI LOPEZ

25 URTE / INGENIARITZA IKASLEA / ESKOZIAN, GLASGOWEN DABIL IKASTEN

“Mundu osoko ikasle ugari dago Glasgowen, eta horrek bizitasun berezia ematen dio”

EDU MENDIBIL

Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan Ingeniaritza ikasketak egin ondoren, doktoretza egitera Glasgowera joan zen Unai joan zen urteko irailean. Aurtengoa bigarren ikasturtea du Eskozian: “Mondragon Unibertsitateak eta Glasgowerakoak kolaborazio hitzarmena daukate, eta hori izan zen hona etortzeko arrazoi nagusia. Ikasketekin jarraitzeko Eskoziara etortzea aukera ezin hobea iruditzen zitzaidan. Eskoziak betitik erakarri nau, hemengo laku, mendi eta gazteluen ospearengatik. Eskoziaren benetan ederra dela bertatik bertara ikusteko aukera izan dut”.

Hainbat bergararrekin egin du topo Unai Glasgowerako unibertsitatean: “Ingeniaritza eta kudeaketarekin harremana duen arloan nabil unibertsitatean lanean, eta Kepa Mendibil bergararrak sail berean dihardu. Kepa alboan edukitzeak sekulako laguntza da niretako, bai ikasletan mailan, bai Glasgowerako bizimoduaren bitxikeriak ikasteko garaian. Harengatik izan ez balitz... Bestal-

“Eskoziarrak ohituta daude atzerriarrak jasotzen, eta oso zabalak dira”

de, unibertsitate berean beste bi bergarar dabilta: Amaia Zuru-tuza eta Anartz Unamuno. Askotan Bergararako eta Euskal Herriko beste lagun batzuekin ateratzen naiz; elkarrekin oso ondo konpontzen gara eta euskararekin ez ahazteko primeran dator-kigu”.

Hala ere, Unairen bizikideak eskoziarrak dira: “Beste lau eskoziarrekin bizi naiz, bi mutil eta bi neskekin. Aurreko ikasturtean frantziarrekin bizi nintzen. Eskoziarren hizkera oso itxia da, ingeles gaitza dute guretzat. Hasi berri den ikasturte osoa eurekin egotea ondo etorriko zait, behin betiko ingeles apur bat ikasteko bada ere... (barre)”.

Ikasle bizimodua nahiko lasaia dela dio Unai: “Tesiaren amaiera gerturatu zen

doan neurrian pertzepzio hori aldatuz doa, baina oraingoz nahiko trankil bizi gara. Ordutegi malgua izateaz gain, ez dugu Euskal Herriaren moduan goizean goiz jaiki beharrik, 09:00ak aldera hasten gara-eta lanean. Arratsaldean, 17:00ak aldera irteten gara eta hortik aurrera bakoitzak gustuko dituen ekintzak egiteko aukera dauka: kirola egin, zinemara joan, pub baten tragoxka bat hartu... Ikasle bizimoduak baditu beste zeregin batzuk ere; izan ere, hemen ez daukagu amaren laguntzarik, eta erosketak, arropak garbitu, etxea txukundu eta beste hainbat gauza guk geuk egin behar izaten ditugu. Bergararen gaudenean, amaren eguneroko jardunaren garrantziaz jabetzen gara”.

Edinburgoren aldean hiri itsusia da Glasgow, baina Unai gustuko du: “Ez nuke Glasgow Edinburgotik aldatuko. Beti entzun ohi da Glasgow oso iluna dela, industrial... Baina baditu txoko politak ere. Gainera, makina bat unibertsitate eta ikasle ugari egoteak bizitasun berezia ematen dio. Esaterako, Mexiko, Indonesia, India, Turkia eta Japoniako lagunekin gabiltza unibertsitatean eta eurekin irte-ten gara askotan. Eskoziarrak ohituta daude atzerriarrak jasotzen, eta oso zabalak dira, etortzen direnei beti laguntzeko prest daude. Sozialki gu baino aurreratuago daude, eta atzerriarrei tratatu egokiagoa ematen badugu zer ikasi eurengeandik”.

Doktoretza bukatu bitartean Glasgowen segituko du Unai. “Gero Euskal Herriera itzuli nahi dut, lanera, susturriak herriaren sakon sartuta dauzkate-eta”. Dena dela, Unairen pista gertu-gertutik segitu ahal izango duzue, laster BERRIGARAN idazten hasiko da-eta, ohiko kolaboratzaileekin batera.



CLINICA DENTAL

BERGARA

Bidekurutzeta 36, behea
Tel. 943 76 05 77

Hortz-protesia
Implanteak eta kirurgia
Odontologia helduendako eta umeendako
Estetika eta zuritzea
Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

RPS 99/94



Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previa, Aegón, Guía de la Sanidad, Azkaran, Fremap, Asepeyo, Fraternidad, M. Universal eta Dentyred.

Kortazar

ORDUTEGI BERRIA
Egunero 11:00etan zabalik

Ogitartekoetan aukera berriak: begetala eta oilaskoa

Barrenkalea 16 Tel.: 943 76 20 62

FUTBOLA

Preferente mailako futbol taldeak Touring hartuko du zapatuan Agorrosinen

Juanina Garairen taldeak ligako lehen partidua galdu zuen zapatuan Zestoan (1-0), eta mahoneroek penalti jaurtiketa bat huts egin zuten

EDU MENDIBIL

Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak Touringen aurka jokatu du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Lehen mailako gazte taldeak, bigarren mailako kadete taldeak eta nesken bi taldeak ere etxean jokatu dute.

Juanina Garairen taldeak ligako lehenbiziko partidua galdu zuen zapatuan, Zestoan (1-0). Zestoarrak 60. minutuan sartu zuten partiduko gol bakarra eta mahoneroek ezin izan zuten emaitza positiborik ekarri, gol aukera ugari izan zituzten arren. Golaren aurretik, Aranguren Zestoako atezainak penaltia geratu zion Gorka San Vicenteri. Juanina Garai entrenatzaileak zera adierazi digu: "Partidua irabazteko aukera paregabea galdu genuen. Lehen zatian aurreratzeko aukerak izan genituen, baina ez genuen ate aurrean asmatu".

Touringek eta Bergarak zortzina puntu dituzte sailkapenean.

Bi taldeek martxa bera daramate ligan: bi partidua irabazi, bi berdindu eta bakarra galdu dute. Errenteriako taldeak 0-1 galdu zuen aurreko jardunaldian San Tomas Lizeoa liderraren aurka.

BESTE LAU PARTIDU ASTE BUKAERAN

Zapatu goizean beste bi partidua jokatu dira Ipintzan: aurreko jardunaldian Eibartarrak taldearen aurka 3-2 galdu ondoren, bigarren mailako kadete taldeak Antzuolaren kontrako derbia izango du, 10:00etan; ondoren, lehen mailako gazte taldeak Zestoan hartuko du, 12:00etan. Aretxabaletan 1-0 galdu zuten aurreko jardunaldian bergararrek.

Arratsaldean, berriz, nesken talde nagusiak Agurain izango du aurrean. Igor Larrañagak zuzentzen duen taldeak irabazi egin zuen aurreko jardunaldian Arrasaten (0-2).

Domekan, futbol jardunaldiarekin bukatzeko, nesken futbol-8ko taldeak Elgoibarren aurka neurtuko ditu indarrak, 11:00etan.



Bergarak etxean jokatu du bi partidua irabazi ditu, Tolosa eta Hernaniren aurka.

OLAJA MONDRAGON

Adolfo Vazquezek irabazi du Kirol Argazkien Lehiaketa

E.M.

Adolfo Vazquez errenteriarra izan da XIII. Kirol Argazkien Lehiaketako irabazle nagusia. *Contraluz* izenburuko lanak zuri-beltzeko lehen saria eman dio Vazquezi, eta *Audacia* lanarekin koloreetako kategorian nagusitu da. Guztira, 98 argazki jaso dira lehiaketan, 57 koloreetan eta 41 zuri-beltzean.

Zuri-beltzeko bigarren saria Benito Cantero bergararrak irabazi du.


berri du *Igerilaria* lanari esker eta Berangoko Javier Pedro Fernandez Ferrerarek lortu du hirugarren saria, *Vuelo aereo* lanarekin. Herriko onenari zegokion saria Juan Antonio Untzurruntzagarendako izan da (*Pelotari*).

Koloreetako kategorian Felix Idigoras bergararrak bigarren saria eskuratu du *Pelota* izenburuko lanarekin eta hirugarren saria Ramon Blanco donostiarrendako izan da (*Kite-surf*). Jose Agustin Gurrutxaga izan da


herriko onena koloreetako kategorian (*Waterpolo II*).

SARI BANAKETA, GAUR

Sari banaketa ekitaldia gaur, egubakoitza, egingo dute kultura etxean, 20:00etan. Lehiaketako argazki onenak bertan ikusgai egongo dira domekara arte, urriak 12. Urte batetik bestera aurkeztutako hainbat argazki dira tartean, eta hurrengo baterako lanak ez errepikatzea zaindu beharko lukete antolatzaileek.



Benito Canterok bigarren saria lortu du zuri-beltzean, *Igerilaria* lanarekin.



Felix Idigorasen *Pelota* izenburuko lana.



Bergara KEko pilotariak Gipuzkoako Txapelketan dihardute.

ARTXIBOA

Gipuzkoako Txapelketako partiduak gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Kadete mailako eta senior mailako partiduak jokatu dira, 20:00etan hasita

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, bi partidu jokatu dira gaur, egubakoitz, Udal Pilotalekuan, 20:00etan hasiko den jaialdian. Lehenbizi, kadete mailako bigarren bikoteak Urnieta 2-ko bikotea hartuko du eta ondoren senior mailako Bergara KEko bigarren bikoteak Zumarragako Beloki taldearen aurka neurtuko ditu indarrak.

LEHENGO ASTEKO EMAITZAK
Aurreko astean ondoko emaitzak lortu zituzten Bergarako pilotariak: Aitor Osa-Jon Larrañaga kadete mailako lehen bikoteak Zegamari 22-1 irabazi zion; gazte mailako bigarren bikoteak, Ander Usaolak eta Eneko Muguruzak osatutakoak, 6-22 galdu zuen Ikas Kirolaren aurka eta, azkenik, senior mailan, Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek Tolosako San Estebanen aurka galdu zuten,

17-22, hain zuzen ere.
MUGURUZA, DV TXAPELKETAN
DV Txapelketan, Ander Muguruzak eta Mintegik Zurdo de Bañosi eta Gomez erroixarrei irabazi zieten zapatuan Ezkarain, 22-21, hurrengo kanporaketarako sailkatuz.
Egiako Txapelketan ere elkarrekin dabilta Muguruza eta mintegi. Han Dominguez eta Bengoetxeari 22-15 nagusitu zitzaizen.

Jose Antonio Aperribaik Oñatiko Golf Txapelketa irabazi zuen

Jose Antonio Aperribai bergararrak San Miguel jaien barruan Oñatin jokatuako Golf Txapelketa irabazi zuen. Irelore zirkuituan 50 partaide izan ziren lehian eta Aperribaik egin zuen ibilbide onena.



Zutik, eskumatik hasita hirugarrena, Jose Antonio Aperribai irabazlea.

MARIAN GONZALEZ

Txapelketa irailaren 28an jokatu zen eta partaideek bi buelta eman behar izan zioten Ireloko zelaia-ri. Oñatiko golf zelaia zazpi zulo ditu; beraz, 14 zulo txapelketa jokatu zen.
Puntuak sailkapenean Jose Antonio Aperribai bergararra izan zen onena, 46 punturekin; bigarren tokian Inaki Igartzabal oñatiarra geratu zen, 42 punturekin, eta hirugarren, berdinduta, Jokin Bengoa arrasatearra eta Enrique Zurutuza oñatiarra sailkatu ziren, horiek ere 42 punturekin, baina Igartzabalek baino *handicap* baxuagoarekin.

EMAKUMEETAN ARKAUZ NAGUSI
Emakumeen eta gaztetxoentzako txapelketak ere jokatu ziren Ireloko zelaian baina han ez zen Bergarako ordezkariarik izan.

Emakumezkoen txapelketa Miren Arkauzek irabazi zuen. Goiko argazkian kategoria guztietako sarituak jasotako trofeoekin.

Aranetak puntu bategatik galdu zuen Azpeitiren aurka

Kadete mailako Araneta saskibaloitza taldeak denboraldi-ko lehen partidua galdu zuen aurreko zapatuan Azpeitiren aurka, Labegarietan, 58-59. Bihar, zapatua, Donostian jokatuko dute.

purua (7 puntu), Julen Santamaria, Ander Garcia (12 puntu), Jakue Bernardo, Eneko Laria (6 puntu), Ander Arazkonaga (puntu bat), Josu Gantxegi (6), Borja Galarraga, Antxon Hernandez (12), Aitor Fernandez (2) eta Josu Elorza (12 puntu).

Iker Barberok zuzentzen duen taldeak hasiera bikaina izan du ligan, baina zapatuan ezin izan zion bolada onari eutsi. Partidua oso berdinduta izan zen, eta azken minutuan eskuratu zuten azpeitiarrek garaipena, etxekoek bi aldiz baloiaren jabetza galdu eta gero. Azpeitiarrek ez zuten hutsik egin kontraerasoan.

PORTZENTAJE ONAK
Bergararren entrenatzaileak eman dizkigun estatistiken arabera, zapatuko partiduan etxekoek %63ko portzentajea lortu zuten jaurtiketa libreetan, bi puntuko saskiratzeetan %59ko portzentajea eta, azkenik, hirukoitzen, %21ekoa. Ander Garcia izan zen 6,25 metroko marratik gehien ausartu zena. Zazpi jaurtiketa egin zituen eta hirutan asmatu zuen Anderrek.

Markagailuan hauek izan genituen partzialak, partiduko lau laurdenetan: 15-15, 32-30, 40-39 eta 58-59.

ZAPATUAN DONOSTIAN
Bihar, zapatua, Araneta taldeak Donostian jokatu du, Easo A taldearen aurka, Bidebietako kiroldegian, 16:00etan. Jokalari mahoneroek ez dute partidu erraza izango baina partidua aurrea ateratzea da euren helburua biharko.

Bergarakoen partetik Ander Garcia, Antxon Miaztegi eta Josu Elorza izan ziren puntu gehien lortu zituztenak. Hirurek 12na puntu egin zituzten zapatuan.
Iker Barberok jokalaririk hauek jarri zituen jokoan Azpeitiren aurkako partiduan: Asier Aiz-



Begararrak fin aritu ziren jaurtiketa libreetan.

INAKI MARTINEZ

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

- ZAPATUAN, BARRUAN**
09:30: PDS-Torrekoa K.Piper.
10:30: Monga-K.Piperrak TMT
11:30: TMT-A Ze Flaxa Toten
12:30: Toten-Belengua A Ze Fla.
18:00: Santana-Pirulotarrak Teatekh
19:00: Dedo Pafarru-Teatekh Pirulot.
- DOMEKAN, BARRUAN**
09:30: Errotagain-Txipiron Egurre
10:30: Egurre-Bedarreta Canalej.
11:30: KGB-Canalejas Ganbara
12:30: Torpedo-Ganbara KGB
16:00: Artusamak-Fac Pagome.
17:00: Pagomendi-Kalaveras Agirreb.
18:00: Agirrebeña-Argandolas Etengabe
19:00: Etengabe-Vervenir Deresak.
20:00: Deresaka-Irubide Vervenir
- DOMEKAN, KANPOAN**
11:30: Cosa Nostra-Fit auto... Bedarre.

YOGA

Yoga ikastaroa 10 eta 13 urte artekoendako

Kirol Zerbitzuak 10 eta 13 urte arteko neska-mutikoendako yoga ikastaroa antolatuko du.
Ikastaroa datorren eguztenez, urriaren 15ean, hasiko da. Hain zuzen ere, eskolak astean behin izango dira, eguztenez, 17:30etik 19:30era.
Kirol Zerbitzuko bazkideendako prezioa, hilero, 8,15 eurokoa da eta gainerakoendako, berriz, 11,40 eurokoa. Izenematea Kirol Zerbitzuan, aste barruan, 07:30etik 13:30era. Ikastaroaren gaineko argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian jaso daitezke.



Javier Arrillagak gitarrarekin lagunduta egingo du emanaldia bihar, zapatua.

ARTXIBOA

Osoko bilkuren aretoan egingo du emanaldia, 19:30ean, eta doan izango da

Javier Arrillagaren gitarra eta ahotsa bihar udaletxean

MONIKA BELASTEGI

Javier Arrillaga musikari zarautzarrak emanaldia egingo du bihar, zapatua, 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Gitarrarekin lagunduta, estilo eta folklore askotariko abestiak egingo ditu Javier Arrillagak. Baita berak sortutakoak ere.

Ahotsarekin eta gitarrarekin estilo askotariko abesti sorta eskaini ohi izan du Arrillagak emanaldietan. Abestietako batzuk

herrietako folklorearen sustrietan errotutako abestiak dira (Euskal Herria, Argentina, Kuba...); beste batzuk, berriz, Pablo Milanes, Joan Manuel Serrat eta antzeko autore ospetsuenak, eta horrez gain, baita Guerra, Dexler eta halako autore gazteenak ere. Hala ere, berak sortutako hainbat ere egiten ditu emanaldietan.

Denboraldi berrirako gure lurraldeko herri kantu berriak gehitu dizkio erreperitorioari Arrillagak, betiere kantuei bere estiloa emanez.

Kontzertuak ordu eta laurden inguru iraungo du, eta atsegina izateaz gain, dibertigarria ere izango da. Izan ere, irribarra sorraraziko duen gai bat edo beste jorratzen du.

Javier Arrillagaren emanaldia Udazken Kulturalaren barruan dago eta Udalak antolatu du Kutzaren laguntzarekin.

Bestalde, ikusgai daude kultura etxean XIII. Argazki Lehiaketako argazkiak. Domekara arte egongo dira ikusgai, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Txikiendako aisialdi programa Jardunen eskutik

M.B.

Jardunek 9 eta 11 urte arteko neska-mutikoendako Txapligu aisialdi programa antolatu du. Programa hori asteburuetan izango da, zapatu eta domeketan, 16:00etatik 20:00etara, Arrizuriaga jauregian.

Eskulanak, jolasak, irteerak... Denetarik antolatzen dute Txapligu programan, eta helburua da adin tarte horretako gaztetxoek aste bukaeran ondo pasatzeko aukera izatea, betiere, euskaraz jardunez.

Zapatu eta domeketan izango da, ikasurte amaierara arte, 16:00etatik 20:00etara. Txapligu

taldeko kide egiteko Jardun elkarrean eman behar da izena. Horretarako bi argazki eraman behar dira eta 25 euroko urteko kuota ordaindu. Informazio gehiagorako 943 76 36 61 telefono zenbakira deitu.

Txapligu programa asteburu honetan hasiko da: bihar, zapatua, mahai-futbol txapelketa eta trikiti festa egongo dira. Etzi, domeka, ping-pong txapelketa egongo da eta gero jolasak.

Asteburu bakoitzeko askotariko ekitaldiak egingo dituzte umeek: urriaren 18an eta 19an *Altxoraren bila* jolastuko dira eta gela apainduko dute, eta 25ean eta 26an, gatz poteak eta San Martzialera txangoa egingo dute.



JARDUN

Eskulanez eta jolasez gain, meriendatxoak ere egiten dituzte Txapligu taldekoek.

LABUR

Paul Nicholson-ek nekazaritzaren eta elikaduraren gaineko hitzaldia egingo du

Datorren eguaztenenean, urriaren 15ean, hitzaldia egingo du Paul Nicholsonek Bergarako udaletxeko areto nagusian, 19:30ean. *Nekazaritza eta elikadura globalizazioaren aurrean* gaia jorratuko du Nicholsonek. Hain zuzen ere, Cancuneko goi bileran izandako esperientzian oinarrituko da.

Bertso Txapelketako kanporaketa gaur

MONIKA BELASTEGI

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa saioa herrian jokatu da gaur, egubakoitza. Zortzi bertsolarik jardungo dute norgehiagokan, tartean bi bergarar, Ainhoa Agirreazaldegik eta Enaitz Alustizak, hain justu. 22:00etan izango da, Novedades aretoan.

Gipuzkoako Bertso Txapelketako lehen faseko saioetako bat jokatu dute gaur Novedades aretoan. Zortzi bertsolarik jardungo dute kanporaketan, horie-

tako bi bergararrak: Ainhoa Agirreazaldegik eta Enaitz Alustiza, hain justu ere. Gainerako sei bertsolariak honako hauek dira: Jokin Uranga, Mikel Arrillaga, Oskar Balerdi, Beñat Lizaso, Gorka Ojanguren eta Leire Ostolaza.

Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko duten bertsolari guztietatik 26 sailkatuko dira final-laurdenetarako, puntuaketaren arabera. Leintz-Urola guri dagokiguna bailarari dagokionez -Ainhoa Agirreazaldegiri eta Enaitz Alustizari dagokiena-, bost bertsolari sailkatuko dira finalerdietarako.



Enaitz Alustiza eta Ainhoa Agirreazaldegik -ezkerrean- dira Bergarako haur eta nagusien bertso eskolako arduradunak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

GUREGAIK / EUSKARA

SMSak euskaraz idazteko hiztegia kaleratu dute Zazpiak Batman kolektiboko kideek

Gazteek, batez ere, asko erabiltzen dute poltsikoko telefonoa, mezuak bidaltzeko. Zazpiak Batman kolektiboko kideek mezu horiek idazteko euskarazko hiztegia argitaratu berri dute: *Zrtko lbru au?*

Kike Amonarriz, Antton Olariaga eta Asisko Urmeneta berriro elkartu dira lan horretan, eta *Zrtko lbru au?* liburua egin dute. Hainbat idazle, marrazkilari eta ilustratzailez osatutako kolektiboa da Zazpiak Batman.

Hatz lodiari lan handia ematen diote gazte askok; oso hedatuta dago elkarrekin komunikatzeko poltsikoko telefono bidez mezuak bidaltzea. Horretarako, eta hartzeko minik ez sortzeko, berben laburdurak asmatu behar izaten dira. Orain, euskarazko laburduren hiztegitxo bat dugu.

DENON HIZKERA

Hizkera berezia eta berria da mezuetan erabiltzen dena; hortaz, hizkera hori denon artean eraiki beharko dugula diote liburua- ren egileek. Horregatik, liburu hori urrats garrantzitsua den arren, denon proposamenak jaso nahi dituzte liburua- ren egileek.

Hortaz, liburuxkan azaltzen ez den proposamenen bat egin nahi izanez gero, badago horretarako aukera. Parte-hartzaileendako sariak egongo dira, gainera. Sari- keta horretan parte hartzeko www.argaia.com/mantxut web- gunera jo beharko duzue. Mant- xut lokuzioen bost bilduma, Kilo- metroak jaiaren bost elastiko eta Zazpiak Batman kolektiboaren beste bost zozkatuko dituzte.

SMS-EN DEKALOGOA

Liburuaren egileek mezuak idaz- teko 10 arau zehaztu dituzte; hona hemen arau horietako batzuk:

Mezuen hizkera berri hori denon artean eraiki behar dugula diote liburua- ren egileek

Kike Amonarrizek, Asisko Urmenetak eta Antton Olariagak egin dute hiztegia

lehendabiziko araua da ez dago- ela araurik; hiztegian bertan dau- denak ere proposamenak beste- rik ez da; ulertzen den guztiak

balio du; ahalik eta pultsazio gutxien egin behar izatea da bes- te arau bat; bestetik, bokal gehie- nak soberan daude eta h-rik ia ez

da erabiltzen; batua eta euskal- kiak, biak dira baliagarriak; letra larriak hitzak nabarmentzeko erabiltzen dira, besteak beste,

haserrea adierazteko. SMSak bidaltzerakoan ere ez dugu aitzai- kiarik euskara ez erabiltzeko: *rtz, mzk re euskrz idtz.*

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez. Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobea den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

ZAHARRAKBERRI

Kultur Hamabostaldiaren barruan, Vicente Madoz medikua eta Elisabet Arrieta soziologoaren hitzaldiak datorren astean

EDU MENDIBIL

Atzo, eguena, abian jarri zuten Antzuola eta Bergarako erretiratuek antolatutako VII. Kultur Hamabostaldia. Datozen egunotarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Besteak beste, mendi ibilaldia eta bi hitzaldi izango dira datorren astean. Hitzaldietan herritarren partaidetza lortzea da antolatzaileen asmoa.

Edadetuak, gizarte-aldaketaren bultzatzaile lelopean, aurtengo Kultur Hamabostaldian hitzaldiak, kultura emanaldiak, irteerak eta beste hainbat ekitaldi izango dira urriaren 25era bitartean. Bihar, zapatua, belau-naldi arteko ekitaldia izango da erretiratuen egoitzan, 16:00etan. Ondoren, 16:30ean, adin guztietako jokalariei zuzendutako xake

txapelketa izango da. Astelehenerako mendi ibilaldia iragarri dute, 17:00etan Ariznoa plazatik irtenda. Partaideak Bolu auzotik Iturrioz baserriraino joango dira eta handik Antzuolara jaitsiko dira. Gero luntxa izango da Antzuolako erretiratuetan.

BI HITZALDI DATORREN ASTEAN

Vicente Madoz mediku psikiatraz *La actividad sanadora* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 14an, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Eguenean, ordu eta toki berean, Elisabet Arrieta EHUko soziologia irakasleak *El sentir ciudadano: un reto para la participación de los mayores* gaia jorratuko du.

Egubakoitzean, berriz, belau-naldi arteko musika ekitaldia izango da Mariaren Lagundiko elizan, 19:30ean, San Joxepeko eta Musika Eskolako Haurren abesbatzekin.




Iazko Kultur Hamabostaldian Miguel Altunako aretoan antolatutako hitzaldiek harrera ona izan zuten.

Kartel eta argazki lehiaketetako sariak banatu zituzten egubakoitzean

E.M.

Kultur Hamabostaldirako erretiratuek antolatutako margo eta argazki lehiaketetako sari banaketa izan zen egubakoitzean. Bertan izan ziren saritutako lanen egileak. Gogoratuko duzue, Anton Arrillaga margolaria izan da Kartel Lehiaketako irabazlea aurten. Antonek egindako lana eskuko programako azalerako erabili dute erretiratuek. 600 euro eskuratu ditu Arrillagak.

Argazki Lehiaketan, berriz, zuri-beltzeko kategorian Javier Fernandez berangarrak eskuratu zuen lehen saria egubakoitzeko ekitaldian, eta bigarren saria Josean Araneza bergararraren dako izan zen; koloreetan, berriz, Mikel Laskurain bergararra gertatu zen irabazlea eta bigarren saria Antonio Jesus Perez sevillarrarentzat izan da. Era berean, epaimahaiak Juan Antonio



Arenaza, Fernandez eta Untzurruntzaga egubakoitzeko sari banaketa ekitaldian.




Untzurruntzaga bergararraren *Futuro carpintero* izenburuko lana nabarmendu zuen eta harentzat sari berezia izan zen.

Bestalde, astean barrena, lehiaketetako eta erretiratuek egindako eskulenen erakusketa egon da ikusgai.



Karrantzara irteera datorren eguaztenean

Hasi berri den Kultur Hamabostaldiko programazioaren barruan, Antzuolako eta Bergarako erretiratuek datorren eguaztenean, urriaren 15ean, Karrantzara (argazkian) joateko irteera antolatu dute. Egun osoko irteera izango da. Besteak beste, Pozalaguako kobazuloetan eta Carpineko Parkean bisitaldi gidatuak egingo dituzte. Izenematea erretiratuen egoitzan egin daiteke. Edozein argibidetarako 943 76 30 09 telefono zenbakira dei egin dezakete interesatuek.

-  Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
-  Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena** **18** urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zer aurki dezakezu Bergaratik Gorlarako bidean dagoen bihurtune baten inguruan?

GALDEDEBALDE

1. Ze harrijasotzailek egingo du marka ahalegina domekan Elosun?
A/ Goenatxo II.ak.
B/ Elosukortak.
C/ Txapartegik.
2. Zeinek irabazi du Kirol Argazkien Lehiaketa zuri-beltzeko kategorian?
A/ Benito Canterok.
B/ Agustin Untzurrunzagak.
C/ Adolfo Vázquezek.
3. Bergarako bi bertsolari izango dira Gipuzkoako Txapelketako kanporaketa saioan. Zeintzuk?
A/ Ainhoa Agirreazaldegi eta Enaitz Alustiza.
B/ Ainhoa Agirreazaldegi eta Egileor.
C/ Ainhoa Agirreazaldegi eta Narbaiza.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
MARKEL LASKURAIN endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Markel!
Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Aritzeta / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Don Rodrigo
Ardo beltza eta gorria. 75 cl.

0,60€
100 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

BERGARAROSPETSUA

Martzial Agirre (eta II)

KOLDO PEREIRA

Italian Lavinia Wittner ezagutu zuen, eta Erroman ezkondu ziren, 1866an. 1870ean, laguna zuen Luvesteingo printzeak *Pio IX Aita Santua* izeneko bustoa egitea enkargatu zion. Lan harekin hirugarren domina eskuratu zuen Erromako erakusketan. 1871n, *Morra jokalaria* eskultura amaitu zuen (Donostiako museoan dago), baita *Jokalaria napolitarra* izeneko ere, Arte Ederretako Museo Nazionalean bidali zuena. Garai hartakoa da *Justizia* izeneko lana, harri tabertinoz landutakoa, Bergarako epaitegian dagoena.

Peñafloridako Kondearen bustoa landu zuen 1873an eta geroago Urdaneta, Elkano, Okendo, Lezo eta Legazpirenak, Diputazioko jauregiaren frontisean ikus daitezkeenak, bi Hercules eta armarriarekin batera. San Ignazio, Urbieta eta Txurrukaren estatuak ere egin zituen.

Donostiara 1875ean itzuli zen eta hainbat proiektu burutu zuen: Espartero jeneralaren estatua, Zumalakarregirena, Okendorena eta beste lan eta enkargu batzuk. 1900eko maiatzaren 10ean hil zen, Donostian, eta han lurperatu zuten.

1870aren inguruan egin zuen 'Justizia' izeneko lana, Bergarako epaitegian dagoena



ARTXIBOA

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



BERGARA
Arritxu Barruso
Urriaren 11an, 21urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Miriam Bouzas
Urriaren 5an, 10urte.
Urte askotarako!
Familia guztia.



BERGARA *
Aitziber Iturriaga
Urriaren 11an, 4urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aritz Unamuno
Urriaren 13an, 3urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mainer Guridi
Urriaren 14an, 3urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Itziar Retes
Urriaren 12an, 6urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Igoitz Retes
Urriaren 15an, 11urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Julen Unzueta
Urriaren 14an, 11urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Miren Murgizu
Urriaren 13an, 3urte.
Zorionak! Familia eta
Alazneren partez.




BERGARA
Joel Sánchez
Urriaren 14an, 7urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Oier Terrazas
Urriaren 13an, 2urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ANGIOZAR
Izargi Vega
Urriaren 9an, 16urte.
Zorionak! Gurasoak eta
anaia.



BERGARA
Unai Yera
Urriaren 11an, 4urte.
Urte askotarako!
Aitziber eta etxekoak.



BERGARA
Amaia Fernández
Urriaren 4an, 31 urte.
Zorionak! muxu handi bat!
Lankideak.



BERGARA
Leire Altube
Urriaren 8an, 8urte.
Urte askotarako!
Oihane eta gurasoak.



BERGARA
Eduardo Berrueta
Urriaren 13an,
urtebetezeta.
Zorionak! Etxekoak.

Adi!


Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33 **Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara **Elgeta:** Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetezeta eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.






San Juan 1 A.
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



ENRIKE TRIPALDI HORTZ KLINIKA

Justo Garate I-behea helbidean gaude orain.
Horrela, gure bezeroei zerbitzu hobea eskainiko diegu.
Ekipamendu berria dugu eta hobekuntzak egin ditugu, gure
lana perfektionatzeko eta teknifikatzeko. Zerbitzu hobea
eskaintzeko kontsulta informatizatua daukagu.



Lantalde profesional onena zure zerbitzura.

Horrez gain, ondorengo zerbitzu hauek ditugu:
Odontologia orokorra, prebentziorako tratamenduak eta ondorengo
espezialitateak: ezarpenak, tratamendu periodontalak (hortzoi-
tratamendua) eta ume eta nagusiendako kirurgia eta ortodontzia.
Umeendako bereziki zuzendutako PADI daukagu (6 eta 14 urte arteko
umeei zuzendutako tratamendu plana) Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta.
Gainera, gure aseguruekin ere jarraitzen dugu.

Odontologoak: Enrike Tripaldi, Iraia Ogiza eta Luis A. Campodorico.
Laguntzaileak: Pili Etxeberria eta Rakel Cenjual.


Ondorengo berritasunak ditugu:



Ortopantomografia



Telerradiografia



Radiovisiografia

Justo Garate I, behea Tel./ Faxa: 943 76 70 76

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 10a / 173. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia onartu dute osoko bilkuran

AINTZANE IRIZAR

Herriko hirigune historikoari dagokion plan berezia onartu du urriko osoko bilkuran udalbatzak. Orain, jendaurrean jarriko dute plan berezi hori, nahi duenak alegazioak aurkez ditzan. Iñaki Berasategi arkitekto bergararrak egin du dokumentua.

Arau subsidiarioen berrikuspena aurrera doa eta badirudi laster onartuko duela Foru Aldundiak behin betiko dokumentua. Arau horiek hainbat gune urbanistikotan banatzen dute herria; horietako bat da hirigune historikoa. Gune horixe, hain zuzen ere, arautuko du onartu berri duten planak.

Aurreko asteko egubakoitzean onartu zuten behin-behineko dokumentua; behin hori onartuta, hilabetez jendaurrean jarriko dute plana, nahi duenak alegazioak aurkez ditzan.

Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren helburua da herriaren gune hori babestea eta zaintzea, baina, era berean, baita bertako bizilagunen bizi kalitatea eta eraikinen kalitatea bera hobetzea ere.



Plan berezi horren helburua da hirigune historikoa babestea eta zaintzea.

IRIZPIDE ZEHATZAK

Oso zehatza da plana; irizpide zehatzak markatzen ditu eraikinei eta gai urbanistikoei dago kienez. Bestiak beste, hirigune-ko eraikin guztiak banan-banan aztertu dituzte eta bakoitzaren

gaineko irizpideak markatu. Horrela, hainbat kategoriatan banatu dituzte eraikin guztiak: babes berezia behar dutenak, babes ertainekoak, oinarriko babes mailako behar dutenak, ordezkaragarriak edo hirigunea-

rekin bat ez datozenak izan daitezke eraikinak.

Lizarragako hiribidea, Kalebarren, frontoirako bidea, Herriko Plaza, Buztinzuri, Ondarre plaza eta Kalegoi hartzen ditu barne plan bereziak.

ZINEMA

Domekan hasiko dituzte emanaldiak


Etzi, domeka, hasiko dituzte ikasurte honetako film emanaldiak. Olaran etxean izango dira, domekero, 16:30ean. 1,10 euro ordaindu beharko da sarrera.

Sekula baino lehenago hasiko dira aurten emanaldiokin. Aurreko urteotan azaroan hasi izan dira. Aurten, berriz, urriaren hasi eta apirilera arte, domekero, film bat ikusteko aukera izango dugu. Batez ere, herriko neska-mutikoei zuzendutako filmak eskainiko dituzte. Aurreko urteetan bezala, euskarazko ahalik eta

film gehien ekartzea da zinemako arduradunen asmoa. Eta lehendabiziko filma bera euskaraz izango da: *Marco Antonio eta Hong Kong-eko bahiketa*, hain zuzen ere.

Datorren astean, hilak 19, ez da film emanaldirik izango, Nafarroa Oinez jaia dela eta. Hurrengo hilaren 26an izango dugu: *101 Dálmatas II* filma ikusi ahal izango dugu egun horretan.

Azaroaren 2an, berriz, euskarazko beste bat eskainiko digute: *Ametsen lapurra*.



Marco Antonio eta Hong Kong-eko bahiketa filma eskainiko dute etzi, domeka.

LABUR

Jonan Fernandez Elkarriko kideak hitzaldia egingo du

Hirugarren Bake Konferentziaren Gizarte eta Prestakuntza Fasea izenburupean egingo du hitzaldia Elkarriko kide Jonan Fernandezek. Datorren martitzenean, hilak 14, izango da hitzaldia, udal-letxe osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Elkarrik otsailen egindako VII. Batzar Nagusiak erabaki zuen 2004ko martxoko hauteskunde ondoan abiaraztea III. Bake Konferentzia. Horren gaineko azalpenak emango ditu Jonan Fernandezek.

Webgunea hilaren 18an aurkeztuko dute

Urriaren 18an, zapatua, aurkeztuko dute Udaleko webgunea. Olaranen egingo dute aurkezpen ekitaldia, 12:00etan. Guztiz bukatuta ez zegoen arren, badira hilabete batzuk sarean jarri zutela. www.antzuela.com helbidean aurkituko dugu webgune hori. Horren harira, webgunea aurkeztearekin batera, KZGunearen berri ere emango dute ekitaldi horretan.

Hamabostaldi Kulturalaren barruan, ibilaldia

Urriaren 16an, eguna, egingo dute irteera erretiratuek mairuen eta kristauen arteko gudua gertatu zen Valdejuquerara. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, eman beharko da izena erretiratuen egoitzan, 18:00ak eta 19:00ak bitartean. Bakoitzak 22 euro ordaindu beharko ditu.

Bestalde, hilaren 13an, astelehena, Antzuolako eta Bergarako erretiratuek antolatutako Hamabostaldi Kulturalaren barruan, ibilaldia egingo dute Antzuolatik Bergarara, lehengo trenbidetik. 16:30ean autobusa izango dute Bergarara joateko.

ELKARRIZKETA

JOSE LUIS PADRON/IDAZLEA

"Haurrak beldurra galdu behar dio irakurtzeari, idazteari, sortzeari"

Gaur, egubakoitza, eskolako umeekin egotekoa zen Jose Luis. Antzuolaren gainean idatziz eta marraztuz arratsaldea ondo pasatzeko aukera izango dute neska-mutikoei. Euren irudimena lantzeko aukera paregabea.

Zer egingo duzue herriko umeekin antolatutako tailerrean?


Antzuolako gida oso berezia sortuko dugu. Euren gertueneko inguruneaz daukaten ezagutza, haur ikuspegia eta sormena erabiliko dute bizi diren lekuan irudimenez betetako ibilbideak asmatzeko. Gida horretan, betiere idazlearen eta margolariaren irudimenetik sortzen diren gogoeta, kale, eraikin, pizti, lorategi eta pertsonaia fantastikoak aurkituko ditugu. Antzuola herria hurrelde berri eta ezagutu gabea bezala azalduko diguna.

Zein izan da tailer horren helburua?

Haurren irudimenaren indar guztia sorkuntzaren altzozan biltzea. Ingurunea ikusteko duten modua eta hezkuntza bat egitea. Eta, batez ere, azpimarratzea, sorkuntza lana, pentsamendua eta artista sena lantzea, ez dela hutsaren hurrengoa, ez dela denbora alferrik galtzea. Idaztea edo marraztea, ekintza dibertigarriak ez ezik, amets egiteko modurik errazena ere badirala erakustea, askatasun bideak, mundu eta gizarte berriak erakitzeko oinarri sendo eta tranpa gabek. Haurrak beldurra galdu behar dio irakurtzeari, idazteari, sortzeari.

Marrakiazkiak eta testuak egin dituzte, baina irakurtzen dute?

Haurraren idazteko gogoak pizten bada, irakurleak direlako da. Hasteko, idaztea irakurtzeko modu bat da. Beharbada, irakurtzeko modu liluragarriena. Idaztea nork bere burua irakur-



CONCETTA PROBANZA

"Idaztea irakurtzeko modu bat da, agian, irakurtzeko modu liluragarriena"

tzea da-eta. Zeure oroitzenak, zeure pentsamendua, zeure beldurrak, zeure gogoak... irakurtzen dituzu. Horregatik, bereak balira bezala irakurtzen ditu haurrak liburuak, heldutasunerako bere bidaiaren nondik norakoak aurkitzen dituelako haiengan.

"Tailerraren helburua da umeen irudimenaren indar guztia sorkuntzaren altzozan biltzea"

Bestalde, gehien irakurtzen den garaia haurtzaroa dela uste dut. Euskal Herrian bakarrik ekoizten den haur literaturazko publikazio kopuruari kasu egitea baino ez dago, eta ohartzea euskal idazle ospetsuenak bereziki zaintzen duten generoa dela hori.

HAURTZAINDEGIA

Hezkuntza Sailarekin batzarra egin dute

AINTZANE IRIZAR

Martitzenean, urriak 7, egin zuten batzarra Herri Ikastetxeko eta Udaleko arduradunek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Xabier Otegiarekin, haurtzaindegiaren gaiak berba egiteko.

Otegi sortu berri den Haurreskolak partzuergoaren berri eman zien, eta herriko ordezkariak euren proposamenak eta nahiak azaldu zizkieten Hezkuntza Saileko arduradunari.

Partzuergoaren helburua da haurtzaindegi publikoak ezartzea, umeak zaindu eta hezteko zerbitzua eskainiko dutenak. Partzuergo hori udalek eta Hezkuntza Sailak osatzen dute, eta azken honek du pisu handiena. Lehenengo fasean, 31 udal sartu dira erakunde horretan. Antzuolako Udalak eginga dauka partzuergoaren sartzeko eskaera; Otegi azaldu zenez, laugarren fasean sartu ahal izango da Antzuolako Udala. Horrek esan nahi du datorren urteko irailean hasiko liratekeela proiektua abian jartzeko lanean.

Bestalde, zera azaldu zien: haurtzaindegiaren jartzeko egin

beharreko egokitzapen lanak Udalak finantzatu beharko dituela. Hasiera baten, %40 edo %45 besterik ez zutela ordaindu beharke esan zitzaizkien udalei, baina hori aldatu egin da.

UDALAK INTERES HANDIA DAUKA

Udaleko Hezkuntza batzordeko buru Inigo Ramirez de Okarizek zera adierazi digu: "Proiektua oso interesgarria da herriarendako, eta horren aldeko apustua egingo dugu Udaletik". Bide batez, gogorarazi digu Udalak apustu globala egin duela etxebizitzak eginez, industrialde baten alde lan eginez eta abar. Eta zera gaineratu digu: "Gure nahia da, horrekin guztiarekin batera, bestelako zerbitzuak ere bultzatzea, tartean, haurtzaindegiarena".

Ramirez de Okarizek azaldu digunez, haurtzaindegiaren izango denaren aurreproiektua dagoeneko eginga dago, eta baita gutxi gorabeherako aurrekontu bat ere. Gauzak horrela, Udaleko arduradunen nahia da ahalik eta azkarren abian jartzea zerbitzu hori eta datorren urteko aurrekontuetan sartzeko egokitzapen lanen gastuak.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urriak 11

12:00: Antzuola-Gasteiz (Neskak)

16:30: Antzuola-Lagun Onak (Erreg.)

Urriak 12

12:00: Antzuola-Tolosa (Gazteak)

PILOTA

Urriak 11 (Gipuzkoako Txapelketa)

17:00: Olalde-Andazpe (Kadeteak)

Ondoren: Olalde-Real Soc. (Nag. pal.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Ondarroa 3 Antzuola 0 (2. erreg.)

Lazkao 4 Antzuola 0 (Gazteak)

Eibar 25 Antzuola 1 (Neskak)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Olalde-Andazpe (eskuz nag.) . . . 22-18

Hernani-Olalde (eskuz kad.) . . . 9-22

Futbol talde guztiek galdu egin zuten aurreko asteburuan

Gauzak zeharo okertu zitzaizkien aurreko asteburuan herriko futbol taldeei. Denek galdu zuten. Gauzak horrela, erregional mailako taldea hirugarren postuan geratu da. Gazte mailako taldea, berriz, azkeneko postuan dago, jokaturako hiru partiduetatik bat berdindu eta bi galdu ostean. Neskak bederatzigarren postuan daude, jokaturako hiru partiduetatik hirurak galdu ondoren; kadeteak, azkenik, hirugarren daude, partidu bakarra jokatu.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko urriaren 10a / 157. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Semaforoak hilabetea amaitu baino lehen martxan ipiniko dituztela iragarri dute


IRATI AGIRREAZALDEGI

Herrian makina bat obra egiten ari dira azkenaldian. Nagusiak semaforoak ipintzeko lanak dira. Aurreratu digutenez, lanak hilabetea bukatu baino lehen amaituko dituzte. Bestalde, abiadura moteltzeko lorontziak jarriko dituzte Salvador kalean.

Autoen abiadura moteltzeko semaforoak herriko kaleetan ipintzeko lanak abian dira. Kaleko hainbat gune egokitu dituzte dagoeneko eta argiak aurki egongo dira prest.

Joan den astean hainbat proba egin zituzten Salvador kalean eta batek baino gehiagok galdetuko zuen lurrian jarrirako kaxak zertarako diren. Bada, semafoekin batera kalearen alde banatan lorontziak jartzeko asmoa azaldu du Udalak, eta horien kokapena eta kopurua zein izan daitekeen ikusteko kaxekin egin zituzten probak.

Lorontziak ez dira espaloien gainean egongo, errepidean baizik, alde bietako espaloien kontra. Lorontziak ipintzearen helburua zera da: nahiz eta semafo-



Semafoeroez gain, lorontziak ipiniko dituzte Salvador kalean, autoen abiadura moteltzeko.

roak jarri, autoen abiadura murriztea, lorontziak oztopo izango dira eta autoendako, eta horiek ez jotzeko polikiago joan behar dute gidariek.

Hala ere, lorontzien artean hutsuneak egongo dira eta, gainera, ez dute kale guztia lorontziz beteko; izango da tartean gunerik zamaketa lanak egiteko.

SEMAFOROAK

Zehaztu barik dago lorontziak noizko ipiniko dituzten; izan ere, lehenengo semaforoak jartzeko lanak bukatu behar dituzte.

Semaforoak martxan ipinita probak egingo dituzte denbora tarteak egokitzeko

Hilabetea amaitu baino lehen martxan izango direla espero du Udalak.

Behin semaforoak ipinita, probak egin behar dute denbora tarteak egokitzeko eta semaforoak gorri edo berde noiz ipini behar duen zehazteko.

Semaforoak martxan ipini ostean, berriz, zehaztu gabeko epe bat lagako dute zelan dabil-tzan ikusteko, eta ondoren jarriko dituzte lorontziak Salvador kalean.

Bai semafoekin bai lorontziekin ere ibilgailuak herri barruan abiadura motelagoan ibiliko direla uste dute proiektuaren arduradunek; hori, behintzat, lortu gura dute neurri horiek hartuta. Gauzak horrela, gutxi gorabehera hemendik 15 egunera ikusiko ditugu emaitzak.



Tunel azpian espaloiak

Herrian zirkulazioa moteltzeko asmoz, hainbat lekutan espaloiak egiteko erabakia hartu zuten. Besteak beste, tunel azpiko alde bietan egin dituzte. Baina obrak ia amaitzean zeudela aldaketak izan dira eta berriz egin behar izan dute alde batekoa. Izan ere, espaloien ertza inklinatuta egin zuten eta horrek umen aulkitxoak pasatzea oztopatzen zuen; beraz, espaloien ertz zuzenak egiteko, aurrekoa apurtu eta berriz egiten dihardute. 15 egunetan amaituko dituzte lanak./I.A.

LABUR

Ahozko ondarea jasoko dute irudi eta ahots bidez

Badihardugu Euskera Alkartiak Debarroko herrietako hizkerak ikertzen eta bultzatzen dihardu, besteak beste, ahozko ondarearen bilketa eginez. Elgetan, urriaren hasita, herriko 80 urtetik gorako hainbat lagun euskara jasoko dute irudi edo ahots bidezko grabazioetan eta lehengo dokumentuekin. Gero herritarren esku jarriko dute alderdi filologikoa lantzeko, baita lehenengo ohituren berri jakin nahi dutenendako ere.

BASERRIA

Putzu septikoetarako araudi proposamena

I.A.

Baserritarren batzordearen azken batzarrean putzu septikoen gaia izan zen nagusi. Horrez gain, baserritarren beharren berri izateko egin den galdeketa erantzunak jaso direnez, horiek zeren gainekoak izan diren esateko baliatu zuten batzarra.

Joan den astelehenean Udaleko Baserritarren batzordeak bilera egin zuen eta bertan, besteak beste, putzu septikoen gaiari buruz egin zuten berba.

Izan ere, lau edo bost urte dira azken aldiz baserrietako putzuak garbitu zirela, eta bertako zikinak ateratzeko beharra ikusi dute berriz ere. Orduan kamioi batek aldi batean guztiak txukundu

zitu. Orain, aldiz, bidaia bat baino gehiago behar dira putzu guztiak husteko; beraz, baserritarrendako kostua igo egingo litzaiteke. Horren aurrean Udalak ordainketaren parte batetaz arduratzea erabaki du. Gainera, putzu septikoen gaineko araudi bat egiteko proposamena egin zuten bileran. Orain arte ez dago arau zehatzik: batzuek garbitzen dituzte eta beste batzuek ez.

BASERRITARREN ESKARIAK

Bestalde, bileran baserritarrek egindako eskarien berri eman zuten. Eskari gehienak bideen konponketen gainekoak izan dira, 14, hain zuzen ere. Ur edangarriari buruzko 10 eskaera jaso dira. Gainerakoak hondakin eta euri-urei buruzkoak, postontzien gainekoak, komunikazioari



GOIENKARIA

Lau edo bost urte dira azken aldiz baserrietako putzu septikoak garbitu zituztela.

dagozkionak, bideak garbitzearen beharrari buruzkoak eta elurte- ingurukoak izan dira. Orain arte 53 eskaera-orri jaso dituzte

eta baliteke gehiago iristea Udalera. Behar guztien azterketa egingo dute, azaroaren 3an horren berri emateko.

ZUZENKETA

ERRETRATU ZAHARRA

Joan den astean *Liburu aurkezpena udaletxean* izenburupean kaleratutako argazkiaren gainean hainbat zuzenketa egin dituzte Patxi Basaurik. Batetik, liburua bera 1975ekoa bazen ere aurkezpena 1976an egin zuten. Urte hartan hartu zuen Basaurik alkate kargua. Bestetik, atzeko irudia amabirjinarena zela esan begenuen ere, Jesusen Bihotzaren irudia da. Horrez gain, beste erretratu bat ere ikus zitezkeen atzeko aldean, eta esan digutenez, Elortza apezpiku elgetararen argazkia da. Azkenik, esan, argazkiaren eskuinaldean agertzen zen gizona Jose Ignacio Carcamo dela, garai hartako Aurrezki Kutxa Muzizipaleko gizarte lanetako ordezkaria.



Udazkenarekin batera inausketa lanak hasi dituzte

Udazkenean egon arren, argazkiko hostoak ez dira berez jausi. Udaleko langileek zuhaitzetako orriak kentzen eta adarrak mozten dihardute. Udazkena heldu ahala urtero egiten dute lan hori, horrela, gero ez dituzte lurreko hostoak batu behar. Platanondoak kimatzen eta lorategietako heskaiak konpontzen asteartean hasi ziren eta datorren astean inausketa lanetan jarraituko dute./I.A.

LABUR

Nafarroa Oinez jaira joateko autobusa ipiniko dute Gazte Asanbladakoek

Datorren urriaren 19an Nafarroa Oinez jaia ospatuko da Iruneberrin. Elgetako gazte asanbladako kideek bertara joateko autobusa ipiniko dutela jakinarazi digute. Oraindik prezioa eta ordua zehazteko dagoo baina kartelen bidez emango dute horren berri. Txartelak Haizea tabernan eta Gaztetxean izango dira salgai.

Erretiratuendako ibilaldia antolatu du Erretiratuen Elkarteak urriaren 15erako

Joan zen urriaren 1ean Erretiratuen Elkarteko zuzendaritzako kideek ibilaldi bat antolatzeko erabakia hartu zuten. Ibilaldia urriaren 15ean izango da, arratsalde, eta bidegorrian barrena Mekolalde eta Soraluze arteko bidea egingo dute erretiratuek. Irteera arratsaldeko 15:00etan izango da. Komenigarria da interesatuek lehenbailehen ematea izena Miren Villarri, urriaren 13a baino lehen.

Uriarte auzora ura eramateko obrak Gabonen aurretik hasiko direla iragarri dute

Onartu dute Uriarte auzora ura eramateko proiektua. Azaroaren hasierarako obrak norik egingo dituen erabakiko dute eta ondoren, urtea amaitu baino lehen obrak egiten hasiko direla zehaztu dute. Lanok egiten bi hilabete inguruz jardungo dute; beraz, beranduenez, martxorako Uriarte auzoan ura izango da. Hala ere, lehen fasean lau baserritara bakarrik iritsiko da ura.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK


ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3

Mo: 656783299 Eibar

Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Bergarako txirrindulariak Eibarren, 1944

Txirrindulari denboraldia amaitzear dago. Lokatza Ziklismo Eskolako taldeko gazteek dagoeneko gorde dituzte bizikletak. Laster helduko zaie errepidera bueltatzeko ordua.

Aspalditik txirrindulari bikainak izan dira herrian, eta horren lekuko alboan agertzen diren txirrindulariak dituzue. Argazkia 1944an dago aterata, Eibarko Untzaga plazan, amateur mailako proba baten aurretik. Tropeleko lehen lerroan txirrindulari bergarar talde bat duzue. Jantzera eta bizikletak ikusita, argi dago txirrindularitza asko aldatu dela ordutik hona...

Ezkerretik eskumara: Enrique Muguruza *Beosin*, Teodoro Agirre *Kanpaia*, ezezaguna, Sabin Elortza *Gantxei*, Dionisio Arregi *Kanpos*, ezezaguna eta Emilio Agirre *Ola*.

Enrique Muguruzak San Antonio-ko eta San Lorentzoko lasterketak irabazi zituen 1945ean.

Argazkia: Enrique Muguruza



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Munibe plaza

Munibe plaza dagoen tokian Galarreta zapata denda egon zen 1970eko hamarkadaren erdialdera arte. Sarrera dotorea zuen dendak, argazkian ikusten den arkuak babesten zuen-eta. Denda itxi zutenean, arkuak estali egin zuten eta pareta pintadak egiteko erabiltzen zuten jendeak. *Bai Euskarari* zioen pankarta, esaterako, 1992an egin zuten. Plaza 2001ean inauguratu zuten.



≈1994 Gaurko Munibe plazan zegoen arkuak. Arkuak estali egin zuten Galarreta zapata denda itxi zutenean.



2003 Munibe plaza 2001ean inauguratu zuten. Lehen zegoen arkuak kendu egin zuten, harriak zenbaituta eta gordeta dauden arren.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 BERGARA Tel.: 943 76 12 50

VOLKSWAGEN TOURAN berria:

- Sei aire-zaku, ABS, EDS, TCS, ESP
- Aire girotua, zazpi eserleku, xenona, nabigazioa
- TDi berriak; 105 eta 130 ZP
- Sei martxa



Zero kilometroko autoen kopuru mugatuak: IBIZA, CORDOBA, FABIA, POLO... ZURE ZAIN DAUDE!



Silvana Caviglia

HORTZ KLINIKA

10 urte hauetan gudan jarritako konfiantzagatik,
ESKERRIK ASKO

- Odontologia orokorra
- Espezialitateak:
 - Implanteak
 - Kirurgia
 - Ortodontzia
 - Periodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia
 - Hortzen zuritzea



Nagore laguntzarilea eta Silvana dentista
Luis Carlos Mora zirujaua

ASEGURUAK

- Sermesa
- Pakea
- Grupo Eroski
- Ibersalud Globalcard
- Aegon
- Asepeyo
- Mapfre
- Fremap
- Azkaran

Simon Arrieta plaza 3, 2B Tel. 943 76 38 54 BERGARA

Ongi etorri!



PANA DE ROKUA
TATETXEAL


• Eguneko menua: 7 euro

• Plater konbinatuak, bokatak eta kazuelatxoak

• Asteburuetan menu berezia: 12 euro

• Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL.: 943 76 82 73



Sinpletasunaren xarma.
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxes: 943 76 70 58

GIDA 04 abian!

Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira edo bidali
ondorengo helbidera:
publi@goiena.com

Gida Komertziala,
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91